

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Euskara Zerbitzua

Akatsen zuzenketa, honako honetan atzemandakoa: ALHAOren 55. zenbakian 2023/1308 iragarkia, 2023ko maiatzaren 12koa, euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri espezifikoa onartzen dituen

Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia arautzen duten oinarri espezifikoen euskarazko testuan akats bat dagoela ikusi denez, oinarri horien testuaren zuzenketa argitaratzen da.

Euskarazko bertsioan, honako hau dioen lekuan:

2. Deialdiaren xedea.

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2022ko uztailetik 2023ko ekainera bitartean egindako ikastaroetarako emango dira dirulaguntzak. 2021eko ekainean hasi eta uztailean amaitu ziren ikastaroetarako ere emango dira dirulaguntza hauek.

Hau jarri behar da:

2. Deialdiaren xedea.

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2022ko uztailetik 2023ko ekainera bitartean egindako ikastaroetarako emango dira dirulaguntzak. 2022ko ekainean hasi eta uztailean amaitu ziren ikastaroetarako ere emango dira dirulaguntza hauek.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 30ean

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
RAIMUNDO RUIZ DE ESCUDERO EZCURRA